

KIMU

2019

**IBILBIDEA ETA IKERKETA PROIEKTUAREN AURKEZPENA
MIKEL PIKAZA RODRIGUEZ**

KIMU 2019 EKIMENA ETA IKERKETA

1-MOTIBAZIO NAGUSIA GOGORA EKARRI

2- GAUZATUTAKO IBILBIDEA

3- ESPERIENTZIAREN BALOZARIO PERTSONALA

4- IKERKETA PROIEKTUA

*ZIRKUA HAUR ETA GAZTEEKIN LAN EGITEKO ERRAMINTA
SOZIOHEZITZAILEA*

5- BIBLIOGRAFIAK ETA ERREFERENTZIAK

1-MOTIBAZIO NAGUSIA GOGORA EKARRI

Aldez aurretik ekimen honetan murgiltzeko motibazio nagusia aurkeztu nahi dut, uste dudalako nire ibilbidea, aukeratutako erreferenteak eta ateratako ondorioak nire testuinguru propioan kokatzen eta kanpotik hobeto ulertzen lagunduko duela.

Profesionalki oso urte oparoa izan da niretzat, Malas Compañías-ekin gure zazpigarren ekoizpenaren aurkezpena eta bira izan dugu, antolatzen dugun Bagatzako Antzerki Jaialdiak bere laugarren edizioa izan du eta Zirkodomoa Barakaldo ekimenaren jaiotza ere bizi izan dugu.

3 ekimen ezberdin hauek haurrak , gazteak eta arte eszenikoak, antzerkiaz aparte zirkua eta dantza ere aintzat hartuta, dituzte ardatz. Beraz, argi dago KIMU programari dinamika hauen garapenean lagungarri izateko asmoarekin ekin niola. Hilabete hauetan, nire ibilbidean zehar ikusi eta ikasitakoa nire errealitatera moldatzen saiatu egin naiz, eguneroko praktikara pixkanaka eramaten eta praktika hauen hausnarketa zabalagoa egiteko baliabide eta erreferentzia berriak eskaini didan heinean, hemendik aurrera ere nire lan egiteko modu eta planteamenduetan eragiten jarraituko du.

2- GAUZATUTAKO IBILBIDEA

KIMU 2019 ibilbidea



MOMIX JAIALDIA KINDERSBERG (FRANTZIA) 05-02-2019/ 11-02-2019

IMAGINATE JAIALDIA EDINBOURG (ESKOZIA) 26-05-2019/29-05-2019

**SEMINARIO DE FORMACIÓN PERSONAL Y TEÓRICA CON BERNARD
ACOUTOURIER
(PSIKOMOTRIZITATEA) DURANGO 15/06/2019-17/06/2019**

**ASSITEJ 2019 TOPAKETA KRISTIANSAND (NORBEGIA)
02/09/2019-06/09/2019**

FORMAKUNTZA

“Adolescence et spectacle vivant” Momix jaialdiaren barnean 3 eguneko formakuntza, begirada oso ezberdinen ekarpenekin, irakasleak, antzezleak, idazleak, psikologoak etab. Gazteak sorkuntzaren erdian jartzeko garrantzia eta proposamen berriak.

Bitartekaritzaren inguruko lana, eredu ezberdinen aurkezpena eta iritzi ezberdinen arteko eztabaidak. Oso interesgarria 10-15 urteko eskarmentuaren bueltan dauden iritzi ezberdinak eta planteamendu berriak zuzenean ikusi eta entzuteko aukera izatea.

“ Seminario de formación personal y teórica con Bernard Acoutourier”

Psikomotrizitate ikastaroa. Hasiera batean ikastaro hau ez zegoen nire aurreikuspenetan baina informazioa jaso nuenean “Praktika Psicomotriz vivencial” delakoaren “Aita”-rekin 3 eguneko formakuntza egiteko aukera ez nuen pasatzen utzi. B. Acoutourier erreferente nagusia da psikomotrizitateari dagokionez, teoria askoren sortzaile eta praktika eredu nagusiaren sortzailea, eta bizirik dago, bera ezagutzeko eta berarekin lan egiteko aukerak oso eskasak dira, 86 urte bait ditu eta Estatu Españolean bakarrik Bilboko eskolarekin ematen ditu formakuntza saioak.

Zalantza gabe KIMU proiektuaren baitan egindako jarduera guztien artean gehien eragin didana eta nire praktika ulertzeko eta aurrera eramateko moduan inflexio puntua suposatu duena.

JAIALDIAK

MOMIX

Europa mailan gazte eta haurrentzako antzerkian erreferente nagusietako bat dugu jaialdia hau, herrialde ea disziplina ezberdinetako 14 ikuskizun ikusteko aukera eman diguna, dramaturgia berriak zein ohikoak, gazteen proposamenak ere taulartzeko planteamendu interesgarria duena, antolakuntza eredugarria eta lotura berriak etengabe bilatzen dituztenak jaialdia aberasteko, orokorrean maila altuko ikuskizunetaz gozatzeko eta esperientzia eta ekimen interesgarriak ezagutzeko aukera izan genuen.

IMAGINATE CHILDREN'S FESTIVAL

0 eta 6 urte bitarteko haurrentzat zuzendutako jaialdia ezagutzeko aukera izan nuen. 8 emanaldi ikusi, formatu, disziplina eta adin tarte ezberdinekoak. Esan beharra daukat proposamen bakarra izan nuela gustokoa. Maila artistikoa baxua iruditu zitzaidan orokorrean baina esan behar dut jaialdiaren arduradunek haurrentzako antzerkiaren inguruan duten ikuspuntua liluratu ninduela. Oso argi proiektatzen dute zertarako egiten duten antzerkia haurrentzat, formatuak oso ondo zeuden aukeratuak eta obra bakoitzaren ezaugarriak eta behar-izanak aintzat hartuta esperientzia eszeniko potente bihurtzen zituzten emanaldi guztiak, nola itxaron, nola sartu, aurkezpenak, iraupenak, publiko kopuruak, espazioen antolaketa. Dena oso zaindua eta oso pentsatua adin tarte bakoitzaren ezaugarrien arabera.

Jaialdi honetatik haur txikiekin lan egiteko eta nire esparruetan bide berriak zabaltzeko grinarekin itzuli nitzen etxera eta nahiz eta txosten honetan ez dudan gehiago garatuko epe ertainera zentzu honetan ekimen berriak bideratuko ditudala argi daukat.

ASSITEJ 2019 TOPAKETA

Mota honetako topaketetan gertatzen ohia da, ez direla jaialdi bat nahiz eta ikuskizunak ikusteko aukera izan ezta formakuntza trinkoak egiteko lekua. Aurtengo programazioan hitzaldi, tailer, aurkezpen interesgarri asko aurkitu ditut eta jatorri eta disziplina ezberdinetako jendea ezagutzeko parada ere, kontaktu eta hartu eman hauek ez dira neurgarriak txosten batean baina duda barik, inspirazio, motibazio eta informazio berrien iturri dira.

*KRITIKA bakarra egingo dut ikusi eta bizi izandakoaren inguruan, egiteko beharra sentitzen dudalako, hala ere ez diot garrantzi gehiegirik eman nahi baina bai nire buruan egindako hausnarketa partekatatu.

Hiru jaialdi ezberdinetan herrialde ezberdinen arteko elkarlan ezberdinak ezagutu ditut, asko tokian-tokiko ekimenak elkar ezagutarazteko eta elkar indartzeko bideratuak eta dinamika interesgarriak herrialde gehiagotara zabaltzeko asmoarekin, honaino primeran dena...

baina ikusi ditut ere proposamen artistiko batzuk ekoizteko nazioarteko elkarlanak eta jaialdi edo topaketan bertan aurkezteko ekimen amankomun batzuk oso eskasak izan direnak, ulertzeko zaila egin zait baliabide eta diru ekarpen haundiekin egindako hain kalitate baxuko proposamenak izatea. Aipatzen dut niretzat garrantzitsua delako hau ere gertatzen dela esatea eta edozer gauza ontzat ematea ez duelako balio, batez ere motibazio eta inspirazio iturri moduan zer ez nahi dugun jakiteko.

3- ESPERIENZIAREN BALOZARIO PERTSONALA

Baina kritika hau egin eta gero esan behar dut guztiz positibotzat jotzen dudala KIMU programaren partaide izatea. Urte honetan zehar hiru herrialde ezberdin eta 10-15 herrialde ezberdinetako artistak eta eragileak ezagutzeko aukera izan dut eta hau beti da aberasgarria, begirada zabaltzen laguntzen du eta norberaren praktika eta dinamiken hausnarketa zabalagoa eta kritikoagoa egiten laguntzen du, horrela gertatu zait niri behintzat.

Eredu berriak, esperientzia berriak, proposamen artistiko ugari, ekimenak, iritziak, hausnarketak... Munduari zabaltzen den leioa izan da KIMU niretzako, eta leio horretatik gauza berriak eta gauza zaharrak ikusi ditut, autokritika eta auto-zaletasuna ikusi ditut, kalitate haundiko ekoizpenak eta ekoizpen eskasak, antolakuntza eredu izugarriak eta egin behar ez denaren ereduak ere.

Guzti honek behintzat gauza baterako balio izan dit, Euskal Herrian arte eszenikoetan bizi ditugun errealitateak begirada berri batekin ikusteko, gure indar eta ahulguneak modu argian ikusteko. Esperientzia honen ostean ideia hauek azpimarratu nahi nituzke::

Egun Euskal herrian haur zein gazteentzako mundu mailako edozein agertokitan presente egoteko proposamen interesgarriak eta kalitate artistikoa badaukagu.

Gure jendartean arte eszenikoek duten funtzioa eta potentziala ulertzeko dugun modua irauli behar dugu.

Eragile artistikook egiten duguna zertarako balio duen ulertzeko premia dugu, batzuek argi daukate aspaldidanik eta dinamika eta proposamen eder, berritzaile eta interesgarrietan dihardute, baina orokorrean, bizi-irauten lan nahikoa daukagula uste dut, pausu bat aurrera joaten uzten ez digun lan neketsua bizi-iraupena...

Baina erronka nagusia nonbaiten ikusten badut, jarduera artistikoa inguratzen duten eragileetan da. Erakundeak, hezkuntza eragileak eta aisialdiko eragileak dira nire ustez modu berrietan elkarrekin lan egitera hurbildu behar ditugun nahitaezko bidai lagunak. Eta modu berrietara esan dut, dakidalako orain arte lan handia egin dela, baina ZERTARAKO BALIO DU JARDUERA ARTISTIKOAK ? Galderari guztion artean erantzun eta bide berriak ematea behar-beharrezkoa dugula uste dut, nahi ez baldin badugu behintzat, gure jarduna entretenimendu edo "kultura kontsumo" soilaren esparruan mugitzen jarraitu hurrengo hamarkadan.

Ez nuen hausnarketa txiki hau konpartitu gabe aurrera jarraitu nahi, ibilbidean zehar konstante bat izan delako eta nire KIMULARI kideekin partekatutako esperientzietan presente egon den eztabaida-gai interesgarria izan delako. Hala ere, nire energiak norabide zehatzago batean eraman nahi izan ditut, planteatutako

ideiekin lotura guztia duelarik, ZERTARAKO? Galderari nire erantzun berritua ematen saiatu naiz eta erantzun hori ez da jarraituko dudana dogma edo paradigma berria baizik eta proposamen praktiko eta partehartzailea, beharrezkotzat jotzen ditudan bide berri horiei egiten diekan ekarpena.

4- IKERKETA PROIEKTUA

ZIRKUA HAUR ETA GAZTEEKIN LAN EGITEKO HERRAMINTA SOZIOHEZITZAILEA

ZERGATIK

Arrazoi pertsonalak izan dira bide hau ibiltzera eramane nautenak, 13 urteko ibilbide profesionalaren ostean eta urte batzuetan zehar esparru honi ihes egin niola onartu beharrekin, ZERTARAKO ? galdera nire buruari egiten nionean eta hausnarketa baten ostean haur eta gazteekin lan egiteko grina piztu zitzaidan, ez bakarrik haur eta gazte baizik eta nire inguruarekin, nire komunitatearekin, oro har jendartearekin modu zabalagoan harremantzeko nahia piztu zitzaidan. Eta zergatik modu zabalagoan? Ba orokorrean orain arteko eskema, erakusle-ikusle, ekoizle-konsumitzaile dinamika ez delako nahikoa suertatu nire lanarekiko ditudan grin eta espektatibak asetzeko.

Zinez uste dudalako ZIRKUA (arte-eszenikoak orotara baina zirkua hartuko dut nire ardatz moduan) erraminta baliogarria izan daitekeela haur eta gazteen prozesu sozio-hezitzaileetan.

Zentzu honetan ikerketa txiki honek ez du ezta hipotesi bat planteatuko, baizik eta azken urtean praktikara eramane dudana zenbait planteamendu, lehen urratsak ematen ari den bide baten oinarritzko planteamendu moldakorra aurkeztuko du, frogatzeke daudenak oraindik. Ez dut kontinente berri bat deskubrituko, soilik beharrezkoak ditugun bide berrien jorratze horretan ekarpen txiki bat egin.

AURREKARIAK

Ez naiz aurrekariekin asko luzatuko, asko dira eta munduko hainbat eta hainbat tokitan, Zirkua haur eta gazteekin dinamika ezberdinak gauzatu dituztenak. Batzuek eremu sozioekonomiko zailtan zirkuaren praktika pobrezia eta bazterketatik ateratzen laguntzeko erraminta gisa erabiltzen dute duela 20-30 urte (edo gehiago) “El circo de los muchachos” Ourensen apaiz batek sortutako ekimena 1960-2011, oso urrun joan gabe aurkitzen dugun esperientzia harrigarria. “circo Voador” Rio de Janeiroko erdi-erdian kokatuta dagoen espazio balioanitza 1984 tik haurrekin dinamika ugari aurrera daramatzana. 2006an bertako ikasle

izateko aukera izan nuen bi hilabetez.

“Circo Social” izenpean Latino Amerika osoan zehar existitzen diren proiektu andanak, Mexikotik Argentina eta Txileraino Haur eta gazteekin jarduera artistikoaren bitartez lan hezitzaile izugarria egiten dute. Argentinan eta Perún dinamika hauetako batzuetan parte hartzeko parada ere izan nuen 2006-2008 urteetan zehar.

“Afghan Educational Children's Circus” da beste eredu bat, modernoagoa eta gerraren ondorioei aurre egiten lagundu nahi duena Kabul hiriaren erdian, ildo honetan sirian, turkian eta gerra eta gatazka gori-gorian bizi duten herrialdetan aurkitzen ditugu norabide berean doazen ekimenak. Ni neuk Greziako pertsona errefuxiatuentzako kanpalekuetan, edo hobe esanda Europar batasunak antolaturiko deshumanizazio eta hazinamendu eremuetan parte hartu dut zirko artista moduan haurrentzako dinamiketan.

Afrikan ere “Debere Berham” Etiopiako hiriburuan zirkuaren bitartez saiatzen da haur eta gazteen egoerak hobetzen, hezkuntzarako eremua sortzen eta jarduera artistikoaren bitartez bizitza proiektu bideragarriak bultzatzen. Berdin egiten du “Sencirk” ekimenak Dakar hirian, Senegal, piszina olinpikoaren eremuan, baita “Circo shemsy”-k ere Marokoko Salé hirian.

Beste esperientzia batzuek ez dute bakarrik bazterketa arriskuan edo egoeretan dauden haur eta gazteekin lan egiten, baizik eta klase ertaineko pertsonekin ere, zentzu honetan aipatu Estatu españolean 2013an sortutako “federación de escuelas de circo socioeducativo” egun 27 proiektu biltzen dituen errealitate eta ekimen ezberdinekin.

Ez naiz gehiago luzatuko, ikerketa honen asmoa ez da mota honetako ekimenen mapa eguneratua egitea, baina ondorio polita ateratzen dut bilaketa honetatik, zirkuak jakin izan du tokian-tokiko haur eta gazteen beharrei erantzuten eta zailtasunen aurrean proposamenak egin eta bide motibagarriak zabaltzen.

GURE PRAKTIKA PROPIOA

Martxan hasteko lehen pausuak ez dira errezak, erabaki ugari eta zailak hartu behar dira edozein norabidetan joateko, aurretik dagoen lana ere handia da baina bidai luzeenak ere lehenengo urratsarekin hasten dira, horretarako hausnarketa asko behar da eta hasierarako helburu betegarri batzuk, bidea egiten jarraitu ahal izateko.

Gure kasuan helburua zirku gure komunitatera zabaltzea izan zen hasieratik, gure gertuko eremuko eragile ezberdinekin lan egiten hastea. Barakaldon gaude kokatuta, nire herria, 10.000-12.000 pertsona bizi garen auzo batean, Bagatza. Bigarren hezkuntzako 4 institutu, lehen hezkuntzako 3 eskola eta Bizkaiko antzerki eskolarik zaharrena dituen auzoan. Azpiegitura kultural gabeko eremua, ez liburutegirik, ez ludotekarik, ez kultur gelarik. Azken 4 urtetan aldatu bada ere aurreko 30etan udal jarduera kulturalik gabeko auzoa.

Auzoak duen hutsune hau, Barakaldok beste auzo batzuetan eta erdialdean eskaintzen duen kultur jarduerarekin konpentsatzen saiatu da beti eta batez ere auzoko eragile kulturelek autogestioaren bitartez sortutako ekimenekin.

Beraz hau da gure testuingurua, ez gaude latino Amerikan, ezta Afrikan ezta gerra eremu batean...hala ere gure errealitatea ere konplexua da eta bere konflikto-esparruak baditu.

Gure proposamena martxan jartzea lortu dugu eta bi adar ditu:

ZIRKUA IKUSI

Exagerazioa dela emango du baina gure eremuan haur eta gazte askok ez dute apenas zirkua zuzenean ikusi, ez daukate erreferenterik ezta oso garbi ere zertaz doan. Zirkoaren praktikara hurbildu nahi baldin baditugu lehen zirkoa zer den erakutsi beharko diegu.

Egin genuen lehen gauza jaialdi txiki bat antolatzea auzoan (BAJ) eta programazio honetara jendartea ezezik eskolak eta institutuak batu. Egun 3 eskolek eta bi institutuk parte hartzen dute eta helburua herriko institutu eta eskola gehiago batzen jarraitzea da. Lehen bi urteetan hezkuntza zentroetara eramane emanaldiak, hortik aurrera espazio erakargarriago izanda, gure karpara ekartzen ditugu ikasleak eta emanaldietaz gain, artistekin kontaktu zuzena, eztabaidak, hitzaldiak eta unitate didaktikoak proposatzen dizkiegu.

Bestalde karparen dinamiken barruan ere emanaldi irekiak eskaintzen ditugu modu egonkorrean, auzoa eta herriaren jarduera kulturean gutxinaka erreferente bihurtzen ari direnak. Familian edo lagun artean esperientzia berezi eta atsegin bat bizitzeko modua bilakatzen da zirku karpara hurbiltzea, ekonomikoki eskuragarria eta pertsonalki aberasgarria (ez bakarrik haur eta gazteentzat). Garrantzi handia ematen diogu ere egoera sozioekonomiko zailtan dauden familiak aintzat hartzeari (Barakaldon bizi gara) eta gizarte zerbitzuen bitartez ahalbideratzen dugu, neurri batean behintzat, baliabide murriztuak dituztenak ere karpara etor daitezen.

Dinamika hauek pixkanaka egonkortzen doaz, gutxinaka publiko bat sortzen goaz eta publiko horrekin lan ezberdinak garatu nahi ditugu, harremana zabalduz eta gure jarduera aberasten jarraitzeko asmoarekin. Lehen urratsak emanda daude eta egun erraminta berriak bereganatzen ditugun heinean, ikuspuntu eta dinamika berriak sortzeko moduan gaude.

ZIRKUA EGIN

Aipatutako ikusle-erakusle eskematik haratago joateko bide bat ikuslea protagonista bihurtzen laguntzea da eta hori da gure lan ildo nagusia. Zirkuaren praktika zabaltzea gure eremuan. Haur eta gazteei zirku disziplina ezberdinak ezagutzeko eta praktikatzeko aukera ematea. Oinarrian sinplea dirudi, espazio egoki bat prestatu, euskal Herriko lehen karpa egonkorra daukagu, material egokiak bereganatu, irakasle talde bat sortu eta aurrera ezta? Bai derrigor, baina bide honetan asko dira mahai gainean argitu beharreko planteamenduak, Zeintzuk disziplina eskaini, zein adin tarterako, zelan antolatu adin tartearak, zein hizkuntzatan, zelan planteatu klaseak, zein helbururekin, metodologiak, bazterketa egoeretan daudenekin nola egin lan.

Galdera guzti hauei erantzuna eman behar izan diegu, erantzun horiek momentuan pentsatzen eta sentitzen genuena eta gure gaitasunen araberakoak izan dira, horrexegatik indarguneak eta ahulguneak dituzte, horrexegatik gure planteamenduak bizirik daude eboluzio konstantean, bizi ditugun prozesuekin kontrastean. Zentzu honetan KIMU kontraste eta hausnarketarako aukera izugarria suposatu du eta gure prozesua erreferente eta ideia berriekin elikatu duen faktoretako bat suertatu da.

DIMENTSIO ARTISTIKOA

Gizakiok gure errealitatea eta ingurua modu sinbolikoan adierazteko gaitasuna daukagu, modu hauek ugariak dira eta historian zehar eraldatu, berritu eta mantendu dira. Gaitasun honek ere funtzio ezberdinak izan ditu garai bakoitzean eta gure beharretara moldatu izan ditugu beti. Batzuen ustez gainera ezagutzara heltzeko modu zuzen eta espontaneoetako bat da.

Zirkua disziplina artistikotzat jotzen dugunetik, dimentsio hau, gaitasun hauek, garatzen laguntzeko bidea ere izan daiteke. Onartua izan da haurren garapenerako erabilgarria dela dimentsio artistikoa, batez ere hezkuntzaren lehen fasean eta batez ere arte plastikoen bitartez, pintura eta material ezberdinen eskulanketa eta eraldatzea. Musika ere onartua da hezkuntza sistemaren baitan baina inolako kurrikulumetan ez da arte eszenikoen balioa aitortzen eta oso eskasak dira zentzu honetan gure herrian existitzen diren esperientziak.

Gazteei dagokienez, batxilergo artistikoa martxan dago iada baina oso zentro gutxitan eskaintzen da beraz heziketa modu honetara jasotzeko aukerak ere oso murrizak dira. Borondate politiko falta eta hezkuntza eragileen artean ZERTARAKO? Galderari erantzun egokien falta, aurreko mendearen hezkuntza sistemaren ezaugarrien eragin astuna dira nire ustez arte eszenikoei atea zabaltzen eragozten duten faktore nagusiak. Bi ideia erabiliko ditut gure asmoa defendatzeko, bi erreferente guztiz ezberdinak baina antzeko norabidean doazenak.

Lehena, Momix jaialdian egindako formakuntza saioetan parte hartu zuen Serge Lesourd psikoanalista eta Strasbourg-eko unibertsitateko irakasleak erabilitako ideia nagusiak, “antzerkiak, gazteek beraien mundua esateko balio du” argi planteatzen du zein den dimentsio artistikoaren funtzio nagusia, gure mundua ulertzen lagundu, gure buruak mundu horretan kokatzen lagundu.

Berak oso argi azaltzen du gazteek zer behar duten eta arte eszenikoek zer eskaini ahal dieten, Nerabeek errekonozimendua, haien ahotsa entzutea, erreferenteak, haien gatazkak aitortzea, azken finean, beraien lekua behar dute eta guk, gure dinamiken bitartez espazio ez derrigortua, esperientzia pertsonal eta partekatuak, protagonismoa, tendentzia berriekin lotura eta kultura trasmizioa eskaini ahal diegu.

Bigarrena, Jack M magnate txinatarrak “hogei urte barru kalkulu eta lan tekniko gehienak inteligentzia artifizialak eta robotikak egingo ditu, beraz gure hezkuntza sistemak irauli behar ditugu, artea, sormena eta irudimena izango bait dira makinetatik ezberdinduko gaituzten arloak”.

Beraz zirkuak badu prozesu hezitzaileetan bere ekarpena egiteko baliogarritasuna, dimentsio artistikoa adin txikietatik garatzen hasteko aukera ematen duelako.

PSIKOMOTRIZATEAREKIN LOTURAK

Bernard Acoutourier ezagutzeko aukera izatea, ikerketa honen norabidea aldatu egin du neurri batean, nire jarduna eta hurrekin zirkuaren praktika ulertzeko modua baldintzatu duelako eta ikuspuntua zabaltzen lagundu didalako.

“ La psicomotricidad es una invitación a comprender todo lo que expresa el niño o la niña de si mismo por la vía motriz, una invitación a comprender el sentido de sus conductas” defendatzen du B.Acoutourirrek, orduan guk zirkuaren praktikan murgiltzen ditugunean eta mugimendua ardatz bihurtzen dugunean, prozesu hauetan uste izan duguna baino askoz gauza gehiago daude inplikaturak.

“ La psicomotricidad se refiere a la construcción somatopsíquica del ser humano con relación al mundo que le rodea” Berrero gure errealtatea ulertzeko eta gure burua bere baitan kokatzeko balio duen erraminta bat.

Nire erronka zirkuak eta psikomotrizitateak dituzten loturak identifikatzea da, zertan datoz bat, zertan ez eta nola hobetu eta osotu zirkuaren praktika eredu bat psikomotrizitatearen praktikak eskaintzen dizkidan baliabideekin.

Psikomotrizitateak bi ardatz ditu, mugimendua eta emozioa eta dinamika ludiko

batzuen bitartez haurren garapenean eragiten du. Gorputzak emozioak biltzen ditu eta hauek norabide ezberdinetan eragiten diote. Mugimenduaren bitartez emozio guzti horiek modu egokian bideratzen lagundu ahal da, emozioen kudeaketa egokiaren bitartez ere gorputzaren mugimendu gaitasunak hobetu daitezke, eta bide horretan norbere buruaren ezagupena, auto-eraikuntza, besteekin harremantzeko modu eta gaitasunak garatzen dira.

Zirkuan ere mugimendua eta emozioa ditugu ardatz, mugimendua trebezia batzuk lortzeko bidea da eta emozioa barneratzen saiatzen gara, trebezia horien erakustaldian zirrara ezberdinak sortarazteko. Orain proposatzen duguna haur eta gazteekin lan egiterako orduan zirkuaren helburuak berriro definitzea da eta eszena batean baino pertsonen garapen pertsonal eta kolektiboaren alde erabiltzea. Uste dugulako psikomotrizitateak eragiten duen zenbait esparrutan ere eragin dezakeelako.

B. Acoutourierrek bere praktika 0 eta 6 urteko hurrekin eramaten du aurrera, pertsonen garapenaren lehen urratsetan eragin ahal izateko eta hezkuntza prozesu formalaren lehen faseetan, eskolako lehen urteetan alegia. Muga zergatik 7 urtetan jartzen zuen galdetuta, nortasuna eta izaeraren eraikuntza sakon eta garrantzitsuena epe honetan ematen delako izan zen, hala ere, bera bat zetorren adin gehiagorekin psikomotrizitateko praktikaren zenbait arlo interesgarriak eta erabilgarriak izaten jarraitzen dutela.

Praktika honetan ere marrazkiari, jolas sinbolikoari, pieza txikiekin egiten den eraikuntzari garrantzi handia ematen zaio, baita saioak erritual moduan antolatzeari, ongi etorria, azalpenak, lasaitzea, ipuinak kontatzea, agurtzea eta material guztiak bere lekuan batzea dira beste osagai nagusiak.

Zirkuan gaitasun fisiko minimoak behar dira ikasten hasteko, eta adina noiz hasten den eztabaida luzea da, leku ezberdinetan iritzi eta praktika ezberdinak dituzte baina egia da disziplina bakoitzak bere ezaugarri ezberdinak dituela, hala ere, ikuspuntua aldatzen badugu eta disziplinen inguruko trebezia helburu izateari uzten dionean aukerak zabaldu egiten dira. Psikomotrizitatearen praktikak eredu baliagarria eskaintzen digu adin ezberdinekin saioak antolatzeko orduan.

DIMENTSIO SOZIO-HEZITZAILEA

Hemen dago gakoa, zirkua haur eta gazteen garapen pertsonala, fisiko zein emozionala, eta kolektiboa, harremantzeko gaitasunak, hobetzeko erraminta gisa ulertu eta praktikara eraman nahi dugu.

Printzipioz ez ditugu artistak formatu nahi, baizik eta pertsonak, haietako batzuk zirku artistak izatea erabakitzen badute gure baliabide guztiak jarriko ditugu horren alde, noski, baina bitartean eta hori gertatuko zain egon gabe adin tarte bakoitzari egokitutako eskaintza bat sortzea da erronka.

Zirkuaren praktikaren bitartez gaitasun eta balore batzuk bereganatzen lagundu, auto-ezagutza, gorputz kontzientzia, emozioen ezagutza eta kudeaketa, sormenaren garapena, autoestimua, jendaurrean egotea, errespetua, talde lana, kooperazioa konpetizioaren aurrean, muga batzuen onarpena eta beste batzuen gainditzea... Aspektu guzti hauek lehen pertsonan bizi izan nituen nire formakuntza prozesuan eta prozesu horren helburua profesionalizazioa zen, beraz helburuak aspektu horien bereganatzea bihurtzen badugu aspektu artistikoen gainera zirkua erraminta erabilgarri, baliogarri eta erakargarria bihurtzen da.

Egun proposatzen dugun adin sailkapena eta ezaugarriak hauek lirarteke:

4-7 urte ZIRKOMOTRIZITATEA

Kontzeptu hau Belgikan martxan jarri zuten zirku artista eta irakasle ezberdinek Veronica Sherboneren metodoan oinarrituta. Harrez gero ikuspuntu eta praktika ezberdinekin gauzatu izan da, hala ere euskal Herrian hastapenetan dagoen praktika bat da eta ez dago metodo edo modu estandarrik finkatuta.

Psikomotrizitatearen praktika eta zirkuaren elementu ezberdinak erabiltzen ditugu. Saioak erritualizatzen ditugu, ongi etorria eta lasaitze faseari garrantzi handia emanez. Jolas librea eta jolas sinbolikoa psikomotrizitatean erabiltzen diren elementuei zirku material edo "jostailuak" gehitzen dizkiegu, gomaespumazko bloke, eta formak, saltorako eremua, sokak eta ohialaz gain, orekako elementuak, malabareak, trapezioa, tranpolina eta koltxoneta ezberdinak haien esku uzten ditugu. Dena da erabilgarria, zirkuan ematen zaion erabilerarekin edo norberak aurkitzen dion beste edozein erabilerarako. Mozorrotzea libre da eta joku sinbolikoan murgiltzeko kapelak eta arropak erabiltzen ditugu. B. Acoutourierren bi arauak errespetatu behar dira, "Ezin da minik hartu eta ezin da minik eman". Norbaitek zirkuko edozer egin edo praktikatu nahi badu, laguntzen saio, azalpen eta ereduaren bitartez, aldiz jolasa bada aukera, bide ematen zaio berdin-berdin. Edozein motatako gatazka sortzen denean, elkarrizketaren bitartez, arrazoiak, sentipenak eta emozioak adieraztera animatzen ditugu. Azkenik lasaitzea marrazki libre edo ipuin kontaketa bitartez egiten dugu. Joan aurretik espazioa aurkitu duten moduan uzten dute denen artean.

Hau da egun gure proposamena, zirkua erakusteko dugun modua B. Acoutourierren psikomotrizitate praktikarekin uztartzen dugu, zirku trebeziak eskuratzea oso zaila den adin tarte batekin uste dugulako askoz baliagarriagoa delako modu honetan.

8-12 urte ZIRKUA

Gure ustez zirkuaren praktika hasteko adin tarte egokiena da, orokorrean trebezia ezberdinak barnerratzeko gaitasun psikomotoreak garatuta dituztelako eta zailtasunak daudenean aurrerakuntza arin ematen delako.

Saio hauen erdigunean norberaren gorputzaren ezagutza jartzen dugu, koordinazioa, malgutasuna, kontrola, arnasketa, beldurrak lantzen ditugu, jolasen bitartez eta zirku disziplina ezberdinen bitartez, akrobaziak, orekak, aereoak eta malabareak. Hala ere lasai egoteko, jolas librerako eta baita marrazketarako espazioak ere eskaintzen dizkiegu saioaren baitan. Ez dago exigentziarik, ez dago estandarrik ezta bete beharreko kurrikulumik, bakoitzak bere gaitasun eta nahien arabera aurrera egitea eta gaitasun eta nahi horiek finkatu eta zabaltzea da helburua. Ez dago ebaluaziorik, ez dago epaiketarik, ez ondo edo txarto, berdin dio gainera. Nola egingo dute ondo lehen aldiz praktikatzeko badute urteak behar dituen praktika bat? Ez du garrantzirik. Garrantzitsua, taldean nola harremantzen diren edo zer jarrera pertsonal dituzten da, zeozer ateratzen ez zaienean frustazioari nola egiten dioten aurre, hor da gehien eragiten saiatzen garen esparrua. Eta nola ez edozer lortzen dutenean ikustarazten eta ospatzen. Saioa bukatzeko 10 minutuko luzaketa eta arnasketa ezberdinak eta posible bada 30 segunduko isilunea norberak bere buruarekin bizi eta egindakoa errepasatzeko.

13-17 urte ZIRKU ETA SORMENA

Gazteekin lan egiterako orduan zirku trebeziak ikasteko aukera ematen diegu, hurrekin egiten dugun moduan eta jolasak eta proposamenak haien adinera egokitzuz, helduekin egingo genukeen planteamendu berdinarekin baina exigentzia albo batera utziz. Garrantzitsutzat ditugun esparruak landuz eta gorputzaren onarpenaren lanketa berezia eginez.

Honez gain haien grinak eta bestelako zaletasunak lantzerako gonbidatzen ditugu eta beste disziplina artistiko ezberdinak praktikatzeko aukera ematen diegu, dantza, antzerkia, abestea, margoztea, rapeatzea eta posible den heinean zirkuarekin nahastuz. Publiko aurrean erakutsiko ez diren pieza txikiak sortzera animatzen ditugu, koreografiak, numeroak, interbentzioak, baina taldekideen aurrean saioaren azken partean erakusteko asmoz, haien sormen gaitasuna eta adierazteko beharra bultzatzeko helburuarekin.

Gaur egun 14 urtetik aurrera helduekin egiten ditugun saio ezberdinetan ere parte hartzeko aukera ematen diegu, haiek ere heldutzat hartuz eta belaunaldi ezberdinen arteko harremanak sortzen hasteko asmoarekin.

*GIZARTE-HEZITZAILEEKIN ELKARLANA

Egun, Barakaldoko udaleko gizarte zerbitzuen bitartez “ Equipos de Intervención Socio-Educativa” delakoekin haien programen barruan dauden haur eta gazteekin lan egiten hasi gara. Bazterketa eta desegituraketa egoera ezberdinak bizi dituzten pertsonak dira oro har, eta zirkuaren praktika positiboa izango delakoan ekin diogu elkarlanari. Elkarlan berria da eta ebaluaketarik ez du oraindik ez gure partetik ez gizarte zerbitzuetatik. Hala ere aipatu adin tarte berdinetan bereizten ditugula, 8-12 eta 13-16 eta planteamendu, helburu eta modu berdinek proposatzen ditugula,

ezberdintasun bakarra saio hauetan bi irakasle eta bi hezitzailek hartzen dugula parte, oraindik ez dugulako gure burua prest ikusten eta hezitzaileekin esperientzia hau partekatzea ikasketa prozesu izugarria izaten ari delako.

EPE LABURREAN

Hauxe da gure ikerketaren oinarria, ibiliz egiten ari garen bidea, KIMU programa ezagutu baino lehen diseinatzen hasi ginena eta KIMU-k ahalbideratutako ibilbideari esker indartu duguna, ezagututako zenbait esperientzia eta erreferentek duda gabe, eragin nabaria izan dutelako gure planteamendu eta praktiketan.

Eta bizirik dagoen prozesua izanda, ez da estatikoa, dinamismoa, aldaketa behar ditu garatzen jarraitzeko. Zentzu honetan erronka ezberdinak aurre-ikusten ditugu gure praktika eta planteamenduen baitan.

Epe laburrera bi dira garapen esparruak:

Erakunde eta aipatutako hezkuntza eta aisialdi eragileekin elkarlanean jarraitu, gure ikuspuntuak haiekin partekatu eta jarduera eta praktika artistikoen garrantziaz ohartarazten jarraitu eta dinamika berriak eta berritzaileak eskaintzen jarraitu, nire inguruan norabide interesgarrietan aldaketa txikiak emango diren itzaropenarekin.

Esparru nagusia hala ere, praktika bera da, gure praktika egonkortu behar da, ebaluaketarako tartea behar dugu, proposatzen duguna zer neurritan egokia den eta zeintzuk diren hobetu beharreko esparruak. Hala ere aurre-ikusten dugu epe laburrera gure ikasleen zirkua sortzeko gaitasuna ikustarazten hasteko moduan egongo garela eta honek beste lan dinamika batzuk ahalbideratuko dituela, sormenaren garapena indartuko dituztenak.

EPE ERTAINERAKO ERRONKA BATZUK

Badakigu epe ertainera oraindik irudikatzen ez ditugun bide berriak ager daitezkeela horregatik jarrera irekia mantentzea ezinbestekoa da guretzat, hala ere, erronka batzuk baditugu, norabide batean garamatzatenak.

Erakunde publikoei dagokienez, erronka nagusia zirkuaren aitortza da, gaur egun “de facto” ematen da aitortza hori, baina gure sektoreak, gure arteak, aitortza juridiko-legala behar du, beste disziplina eszeniko batzuek dutenaren antzekoa. Existitzen garelako eta jendartean dugun eragina gero eta handiagoa delako. Euskal herri osoan zirku ekimen eta dinamika anitz eta ezberdinen biziraupenerako beharrezkoa dugu marko legal bat sortzen hastea.

Hezkuntza sistemari dagokionez lanean jarraitu behar dugu, esperientzia, ekimen eta elkarlan puntualen bitartez, eta eragin positiboa sortzeko dugun gaitasunaren bitartez programa formal eta egonkorak sortzeko grina eta beharra bultzatzea da erronka. Hala ere, ez dut uste hau epe ertainera gertatuko denik Euskal Herrian.

Gure egunerokotasunera etorriak, gure praktikaren zenbait planteamendu gainditzea dugu helburu. Hauek testuinguru batean sortu ditugu eta testuinguru hori eraldatzen den heinean planteamenduak ere aldatuz joan beharko dira. Batez ere adin sailkaketari dagokionez, gaur egun beharrezkoa izan dugu gure ikasleak zirkua ez dutelako inoiz praktikatu eta praktika horretan murgiltzeko lagundu du bakoitzaren ezaugarri eta beharrei hobeto erantzuteko baina gustatuko litzaiguke epe ertainera gaitasunak eta autonomia garatzen doazen heinean sailkaketa horiek gainditzeko. Saioak nahi eta motibazioen arabera antolatzea adinari hainbeste erreparatu gabe. Belaunaldi arteko harremanari garrantzi haundiagoa emateko eta trebezia ezberdinen ezagutzaren partekatzea indartzeko, ikasle-irakasle eskema ahulduz.

Inklusioa ere erronka dugu, gaur egun hastapenetan dagoen dinamika eraldatzeko asmoz. Gustatuko litzaiguke egun talde bereiztuak direnak epe ertainera beste taldeekin batera nahasteko aukera izatea eta bakoitzaren egoera sozioekonomikoak ez baldintzatzea inoren parte hartzea.

Baina hau, beste guztia bezala, ekinaren ekinez lortzeko asmoarekin goaz egunero lanera.

5 BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK

“Los fantasmas de acción y la practica psicomotriz” Bernard Acoutourier 2004

“Actuar, jugar, pensar” B. Acoutourier 2018

“la construction psychique de l’adoslence” Hitzaldia Serge Lesourd Momix 2019

“El cuerpo en movimiento, el método de Verónica Sherborne...209El cuerpo en movimiento, el método de Verónica Sherborne para la inclusión” Marta Prades y M^a Ángeles Llopis

“El circo social; como herramienta de intervención comunitaria para la prevención de conductas de riesgo psicosocial: un estudio cualitativo a partir de las vivencias de adolescentes y jóvenes del programa Previene-Conace de circo social de la comuna de Maipú”.

http://www.redcircosocial.cl/descargas/tesis_circo_social%20marcelo_circo%20ambulante.pdf

“Programa de desarrollo de habilidades socio-emocionales a través del circo” Cuerda Firma, Chile 2016 <http://www.fedec.eu/file/695/download>

<https://www.tejidodecircosocial.com/una-red-de-circo-social>

<http://www.redcircosocial.cl/>

<https://feecse.es/>

<https://www.smallsize.org/>